

FUNTZIONAMENDU ARAUAK
Ospitalizazioko Unitatea – POLIKIRURGIKOA
Dei egin behar baduzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA
ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitateetik borondatez irtetekotan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza- asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaleetik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurdunak edo lur gabeak.
- Norberaren Datuen Babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ospitaleraturik dagoen inori buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalen inguruko ardurarik.

EBAKUNTZA BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA


- Ebakuntzak irauten duen bitartean, gelan edo igogailu-gunean egon zaitezke.
- Ebakuntza ondoko informazioa telefono bidez egiten da, erreferentzia gisa utzitako telefono-zenbakian.
- Anestesia ondoko bizkorketa ABUan egiten da, ebakuntza-gelan.
- Kirurgia programatuta badago, pazientearen kokapena SMS bidez jakinaraziko da.

MEDIKUAREN BISITA ETA SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA


- **Kirurgia, egunero 09:00etatik 14:00etara. Medikuntza, astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 14:00etara.**
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.

OTORDUAK


08:30etik 08:45era Gosaria
 12:45etik 13:15era Bazkaria
 16:45etik 17:15era Askaria
 19:45etik 20:15era Afaria

BISITAK

- 08:00etatik 22:00etara, lanegunetan
 - **Gehienez PERTSONA 1 paziente bakoitzeko.**
- Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).


LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Une jakin batean beharrezkoa izango da senitartekoren baten presentzia, alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.

Gogoratu pazienteen **zainketek ordutegi** jakin bat dutela.



Ospitaleratzearen egiaztatzea (enpresarako, familiako medikuarentzat edo senitartekoentzat), Harrerako Unitatean jasotzen da, beheko solairuan, sarreran.


SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000887. Kanpora deitzeko, **logelatik**, telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo zerbait behar izanez gero, deitu 1422 luzapenera edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista- eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke eta.


KAFETEGIA Ordutegia: 07:30etik 22:00etara.

Ate Nagusiaren aurrean dago.

Itxarongeletan kafe- eta freskagarri-makinak daude.



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senitartekoren batekin izatea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.



ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA: AUOKo SANTIAGO kapera. **MEZA ORDUTEGIA:** ASTELEHENETIK LARUNBATERA 20:00etan; **IGANDE ETA JAIEGUNETAN 11:00etan.** Arrosarioa Eukaristia baino 30 minutu lehenago ospatzen da.

Harremanetarako telefono-zenbakia: **618 75 14 15**

PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) beheko solairuan dago. **Ordutegia:** 09:00etatik 14:30era (astelehenetik ostiralera). **Gizarte-langilea:** 3. C solairuan dago.